

# Nafarkaria


• ostirala • 2000ko azaroaren 17a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Nafarroa** • Orreaga elkarguneak Kultur Hamabostaldia antolatu du Nafarren Biltzarrerako bidean  
**Jesus Diges** • «Kirolak argazki ederrak egiteko aukera ematen du»



• JOXE LACALLE/OSKAR MONTERO

## 25 urte ondoren

Heldu den astelehenean 25 urte beteko dira Franco diktadorea hil zela. Garai hartako sinbolo eta ikurrak oraindik ikusgai dira Nafarroan. Uste baino gutiago dira, baina oraindik badira. Nafarroako Parlamentuko azken osoko bilkuran ikur horiek kentzeko mozioa onar zedin saiatu ziren batzuk, baina egungo egoera gatazkatsua dela medio mozio hori atzera bota zuten besteek. Francoren hondarrak dira.





Nafarroa ●

# Nafarren Biltzarrerako bidean

Orreaga elkarguneak Kultur Hamabostaldia egingen du abenduaren 3ko ospakizuna gogoan

**Nafarroaren batasuna eta euskara defenditzea du helburu Orreagak, Nafarroa osoko 50 bat kultur taldek osatzen duten bilguneak. Abenduaren 3an Nafarren Biltzarra besta ospatuko dute, eta aitzineko hamabostaldian hainbat kultur ekitaldi egingen dituzte.**



Abenduaren 3an, Nafarren Biltzarrean, ahalik eta nafar gehien bildu nahi du Orreagak Foruen monumentuaren aitzinean.

EGUNKARIA

Aurreko bi urtetan, Merindadeen Eguna antolatzen zuen Orreagak, baina aurten izena aldatuko diote. «Nafarroa Beherea ez da inoiz merindadea izan», esplikatu du Orreagako kide Patxi Erdozainek. «Guk Nafarroa osoaren besta ospatu nahi dugu». Abenduaren 3an, ofizialki Nafarroaren Eguna deitu duten horretan, Nafarren Biltzarra ospatuko du Orreagak Iruñeko Foruen monumentuan. Orreagaren nahia da egunari kutsu ofizialista kentzea. «San Frantzisko eguna herritartu behar dugu, ofizialtasun handiegia baitu», erran

du. Bestan, ahalik eta nafar gehien biltzea nahi dute.

**Kultur hamabostaldia**

Baina egun hori etorri bitartean, Orreagak Kultur Hamabostaldia antolatu du hilaren 18tik abenduaren 2ra. Alde batetik, erakusketa antolatu dute Nafarroako 61 eskulangileren lanekin. *Nafarroa begi onez* izena du. Bihar arratsaldean inauguratuko dute, AEKren egoitzan.

Iruñean, Tafallan, Aezkoan, Altsasun eta Lesakan ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte (ikus ondoko egitaraua). Tuteran, Erlantz Urtasunek

*El euskara en la Ribera* hitzaldia emanen du, baina eguna zehazteke dago oraindik.

Iruñean sei mahai-inguru egingen dituzte Nafarroako nekazaritza, industria, bazterketa, ondare, aterabide politiko eta euskararen inguruan. Erdozainek adierazi du eztabaida sortu nahi dutela: «Eztabaida sortzea nahi dugunez, oso jende ezberdina gonbidatu dugu. Izanen dira herri mugimenduko ordezkariak, baina baita Nafarroako Gobernuko bi zuzendari ere. Hala, eztabaida ziurtaturik dago».

→ Asier Azpilikueta

## Orreagaren kultur hamabostaldiko egitaraua

**IRUÑEAN**

**Azaroak 21**

► **Mahai ingurua:** *Nekazaritza eta abeltzaintza Nafarroan. Arazoak eta irtenbideak*

Eric Dolosor (ELB), Mikel Lasarte (EHNE) eta Txomin Otamendi (IAN enpresa)

**Azaroak 23**

► **Mahai ingurua:** *Del presente al futuro de la industria de Navarra*

Txema Amigot (ANEL), Rafael Muguerza (Nafarroako Gobernua) eta Enrike Galarza (NUP)

**Azaroak 24**

► **Mahai ingurua:** *El patrimonio, una necesaria vision global. Su situacion en Navarra*

Koldo Martinez Garate, Joseba Asiron eta Peio Iraizoz

**Azaroak 28**

► **Mahai ingurua:** *Marginación y exclusion social en Navarra*

Emilio Galera, Jose Luis Alli (Nafarroako Gobernua), Ignacio Aierbe (Anafe)

**Azaroak 30**

► **Mahai ingurua:** *Nafarroaren geroa. Aterabide politikoa*

Bittor Aierdi (Elkarri) eta Gaizka Aranguren

**Abenduak 1**

► **Mahai ingurua:** *El euskara en Na-*

*varra. Agentes sociales que propician la actual situación y previsiones de cara al futuro*

Jose Mari Satrustegi (Euskaltzaindia), Jose Manuel Urroz (Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzako kide ohia) eta Kike Diez de Ultzurrun (Euskalerria Irratia)

**Oharra:** Mahai inguru guztiak hizkuntza eskolan izanen dira, 19:30ean

**TAFALLAN**

**Azaroak 17**

► **Hitzaldia:** *Presente y futuro del comunal*

Emilio Majuelo

**Azaroak 19**

► Ibilaldia komunaletan barna

**AEZKOAN**

**Azaroak 25, 20:00etan**

► **Hitzaldia:** *Fechas emblematicas en la historia de Navarra*

Bixente Serrano Izko


**Abenduak 1, 20:00etan**

► **Hitzaldia:** *La globalizacion y la economia en Navarra* Enrike Galarza

**ALTSASUN**

**Azaroak 17, 19:00etan**

► **Hitzaldia:** *Euskararen egoera Sakanan eta Nafarroan* Joxemiel Bidador



zubian barna

**BINGEN AMADOZ**



H aize-hegoak astindu ditu bazterrak. Hostoz erantzi ditu, orain erdi biluzik, dardaran gelditu diren arbolak. Orbelez jantzi ditu, ordea, bidexkak eta karririk. San Martineko uda labor engainagarria zen, baina udazkena aurrera doa gurean.

Natura bere oparotasun osoan ageri zen arestian, eta xarma guztiak galduta, hezurretan izanen da laster. Halaxe da denbora, iheskorra, gupidagabea, geldiezina. Sanferminak atzo, bihar Egu-berri. Uda parteko hainbat amodio ez dira udazkenera iritsi. Mementokoak izanen ziren agian. Udako festak eta oporraldiaren poza euskarri izan ziren lehertzeko zorian zeuden beste gatazka

## Hoztasuna

batzuentzat. Azken zezensuzkoek erre dituzte paperezko zutabe horiek, eta orain, udazkenean, aspaldiko harreman batzuk bertan behera erori eta kalera atera dira sukaldeetan egositako hausturak.

Ez dakit ez ote dituen gizarteak berak zutabe izandako zenbait balio galbidean jarri. Europarra-go, globalago bihurtzen ari garen neurrian, batzuk besteekiko urrunago gaude, bakartiago.

Ezezagunak etsaia ematen du sarritan. Hala-koa adierazten dute hipermerkatuetako bultzadak edota kotxe-gidariak edozein gauzarengatik arrapaladan botatzen dituzten hitz gogorrek. Konpetitibitate eta kaleko zurrumbilatik aldentuta gera-

tzen direnak geroz eta ahantziago daude. Gaixo eta zaharrei murriztu zaizkie bisitak. Igogailuan kostata entzuten dira agurrak. Askotan ezer ez. Ez omen gara ikusgarri besteentzako, ezezagunak izateagatik. Hitz tratu goxoa edo gutxienez atsegin eta gertua lortzeko bezero tematia izan behar da taberna batean, administrazio publikoan diharduenaren laguna edo familiartekoa.

Hala ez bada, tratu hotz eta urruna emanen dizute, tartean mesfidantza eta hoztasuna jartzen dituen hizkuntza erabiliz.

Arauek Europa izotzuaren parte garela inposatu nahi digute. Frantsesek aspaldian galdu zutena ari zaigu kentzen: hurbiltasuna, hain zuzen.



Elizondo ●

# Eliz egoitza berria

Elizaren zinema zena berreraiki dute, eta aurrerantzean erabilpen anitzetarako izanen da



Elizaren zinema zena zaharberitu dute eta gauza anitzetarako erabiliko dute aurrerantzean. ● RAKEL GONI

**O**N MAURIZIO BEREKOTXEA izan zen Elizondoko lehen zinemaren bultzatzailea. Elizaren zinema zen, eta gutxi gorabehera 35 urtetan astero lau egunetan filmak eman zituen. Zinema mutua izan zen hasieran, saioetan ez zen faltatzen pianoaren musika. Egun haietan haur eta gazteek antzerkia ere egiten zuten zinema aretoan. Geroago zinema soinuarena etorri zen, eta arrakasta nahikoa izan zuen 1966. urtea arte. Sarrerak, toki onetan, 15 pezeta balio zuen azkeneko urteetan, 10 pezeta aurrean eta 5 goiko solairuan. «Goiko jarlekuak oso gogorak ziren, ez dakit jendeak nola irauten zuen han film osoan», dio Julian Mitxelena apaizak, elizaren zinemaren azken administratzaileak.

Urteekin Maitena izeneko zinematokia eraiki zuten eta, hala, Elizondok bi zinema izan zituen garai haietan. Asteko

**Hogeita hamarreko urteetan ireki zuten Elizondon lehen zinema, eta gutxi gorabehera 160 pertsonentzako tokia zegoen bertan. Zinemaren egoitza erabat birrinduta zegoen, eta, hori dela eta, elizak konpontzea erabaki zuen zenbait gauzatarako erabiltzeko.**

sei egunetan ikus zitezkeen filmak herrian. Baina, azkenik, lehia zela eta, elizaren zinemak salaketa jaso zuen. Hasieran ez zioten kasu handirik egin, baina azkenean Industria ministroak berak behartu zituen zinema ixtera.

Geroztik haurrendako jolas-tokia izan da elizaren egoitza. Elizondoko guraso elkarte baten hainbat urtez eduki zuen areto guztia billar, futbol mahai eta jokoz beteta, hurrek neguko egunetan aisialdirako toki bat izan zezaten.

Baina urteen poderioz egoitzaren egoera kaskartu egin

zen, eta teiltua konpondu nahi zuten erortzeko zorian zegoela ikusi zuten. Orduan Javier Azpirozek, Elizondoko egungo apaizak, eliza, Udala eta guraso elkartearen artean moldatze lanak egitea proposatu zuen, baina inoren erantzuna jaso ez zuenez elizak berak konpontzea erabaki zuen.

Azkenean 391 metro koadroko egoitza inauguratu berri dute. Beheko solairuan areto nagusia, kapera eta komunak daude. Lehendabiziko solairuan katekësia emateko zazpi gela eta sabaian batzorde eta bileren aretoa dago. Dena den,

«egoitza eskatzen duenari uzteko prest gaude, ekitaldi kulturalak egiteko bada», azaldu digu Javier Azpirozek. Orotara 42 milioiko aurrekontua izan du lanak. Herritarren artean egindako eskarrietatik zazpi milioi atera ziren, Apezpikutegiak beste bost eman zituen eta gainontzekoa elizak zituen fondo batzuetatik eta kreditua eskaturik lortu zituzten.

Historia ez ahazteko edo, oraindik ere elizaren aretoan filmak proiektatzeko trankulua gordeta dute.

→ Rakel Goñi

## herri aldizkariak

Edurne Elizondo

### Ardiak erotzen ari ote?

Napal herrian joan den udan artalde bati *scrapie* gaitza antzeman zitzaion; zala-parta ederra sortu du gai horrek Nafarroan, eta, hori dela eta, gaitz horren inguruko artikulua bildu du **Pulunpe** aldizkariak bere azken zenbakian: «Gaitza behi eroen gaitzarekin lotu izan da, baina, EHNE sindikatuak dituen datuen arabera, *scrapie* ez du zer ikusirik behi eroen gaixotasunarekin, eta ardiak gaixo daudela janda ere, ez dago inongo kutsadura arriskurik gizakientzat. Komunikabideetan, aldiz, beste bertsio bat azaldu izan da. Tesi honen arabera, behi

eroen gaitza behiak pentsuetan *scrapie* duten ardiaren hondakinak kontsumitze-agatik heldu da. Ikusten denez, era askotako bertsioak aurkitu daitezke».

«Gaixotasun hau aspalditik ezagutzen da, Nafarroan agertu berria bada ere. Lehenik Ingalaterran agertu zen eta geroztik Europa osoan ezagutzen da. Iparraldean, esaterako, ehun bat kasu izan dira. Euskal Herriko Hegoaldean, berriz, nahiz eta latxa muturgorriak oso sentisiblerik diren gaitzarekiko, ez da antzeman. Nafarroan lehenengo kasua Napalgo artalde batean agertu zen, Irunberri

inguruan. Gaitza antzeman bezain pronto sakrifkatu egin zen artalde guztia, 2.000 ardi inguru».

«Nafarroan agertutako *scrapie* kasu hauek agerian utzi dute indemnitzazio politika erabat urria eta eskasa dela. Izan ere, bost urtez beherako ardiengatik 9.375 pezeta soilik ordaintzen baitira. Bost urtez gorako ardiaren indemnitzazioa txikiagoa da oraindik, 5.220 pezeta, hain justu ere. Laguntza sistema hori handitu egin beharko litzateke, EHNE-ren irudikoz, baserritarra galtzaile suertatu ez dadin».



urdai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

### Plan bat daukat (II)

Egun horretan, Gaztelu plazan, ordenagailu portatilaren aurrean eseriko garenak hiru izango gara. Euskararen Aldeko Kalaberagaineako Mugarri Beltzaren Solidarioen hiru kide hautatuak. Gutako bat programazioan aditua izango da: Unix, Java, Php eta C hizkuntzen kodeak idazten orojakituna, Back Hole guztien ikertzailea, Sistema Eragilearen azitia, sateliteen hacker megasusarta, telefonia mugikorrean hiperaditua!

Bigarrena ordenagailuen hardwarean hipertrebatutakoa izanenda: SCSI eta USB, FireWire eta ADB, Diamondtron eta Vodoo, SDRAM eta PRAM hitzen atzean dagoena eta ez dagoenaren profeta, mistikoa, elektronauta!

Hirugarrena Nafarroako Gobernuaren funtzionarioa izango da: Paperologian maisu, Numerologian bapo eta Artxibozaintzan doctore ibiliko dena. Egun horretan ordenagailua piztu eta memento horretan operazioa hasi zenetik hiru segundo pasatuko dira. Telefono Mugikorren bitartez Chicagoko zerbitzari batean sartu (Japoniako zerbitzari bati alde aurretik Sarean lapurtutako IP finke baten bidez) eta Nafarroako Gobernuaren ordenagailu nagusiari seinale bat bidaliko diogu. Ordenagailu nagusiak pasahitza eskatu eta edozein hitz idatziko dugu pantailan, «kaka» esate baterako, «jirafa» esate baterako, ordenagailu nagusiaren atzeko atea aurkitzen dugun bitartean seinalea mantentzearen. Memento horretan operazioa hasi genuenetik sei segundo pasatuko dira. Atzeko atea aurkitu eta gero gure funtzionario-solidarioaren laguntzaz direktorioetan bidaia labirintikoa osatuko dugu: Hizkuntza Politikaren Aurrekontuak aurkitu arte. Aurrekontuen artxiboa aurkitu eta guk prestatutako beste artxibo batekin ordezkaturiko dugu, eta era berean jokatuko dugu Gobernuko ordenagailu nagusian agertzen diren hitz bereko artxibo guztiekin. Gero Polinesiatik sartu eta gure urratsak ezabatuko ditugu. Gero Nairobitik sartu eta, elefantearen estrategia-rekin, Trafiko Sailean kristoren triskantza eragingo dugu (disimulatze-ko asmoz). Memento horretan operazioa hasi zenetik hamar segundo beteko dira, baina euskarari bideratutako diruak bikoiztuak egongo dira jada. Gora Kalaberagaineako Mugarri Beltza! ●





• MIKEL SAIZ



**Kale izen neutralak**

Cadreitak kale izen frankista asko zituen. Jeneralez beterik zuten herria: Franco, Mola, Sanjurjo, Cabanellas, Aranda, Davila, Varela... Eta bestelakorik ere bazuten: Voluntarios, Defensores del Alcazar, Calvo Sotelo, Jose Antonio... Baina berriki kale izendegia aldatu egin dute, eta inor ez iraintzearren izen neutralagoak aukeratu dituzte, hala nola Nafarroa edo Miguel Indurain.



**Inperioko arranoa**

1978ko Konstituzio aurreko Espainiako armarría zena bait eraikin ofizialetan dago oraindik. Goikoa Karlos III.a hiribidearen bukaerako Erorien monumentuan dago; eta behekoa, Espainiako Gobernu Ordezkaritzak Merindadeen plazan duen eraikinaren aitzinaldean.





**Etxebizitza frankistak**

Frankismoaren azken hogei urteetan eraikiñko Iruñeko babes ofizialeko etxebizitzek irudiko plaka hori dute, Etxebizitza Ministerio frankistaren ikurra, eta Falangereen uztartaria eta geziak.



**Kale izen frankistak**

Nafarroan oraindik hamar bat herritan dituzte kale izen frankistak, Francori berari eskainitakoak, Francoren jeneralei, ministroei, «martiri»... (Jose) Calvo Sotelo 1936ko uztailaren 13an hil zuten agintari eskuindarra zen. Corellan dago plaka.



**Erramu koroa**

Francok erramu koroa paratu zion 1937an Nafarroako armarriri, «heroitasun eta sakrifizioaren» ordain. Eskerretik eskuinera, Iruñean: Erorien monumentua; Nafarroako Kutzaren eraikin zentrala (Orreaga karrikan); Nafarroako Jauregia, Sarasate pasealekura ematen duen aldeko frontisa; autobus geltokia.



# Francoren hondarrak

Nafarroan gindik ikus daitezke Francoren eta haren jirukoeroimenezko ikurrak

Astelehenean 25 urte bete dira Franco diktadorea hil zela eta, horren harira edo, Parlamentuazken osoko bilkuran Nafarroan gelditzen diren sinbolo frankistak kentze mozioa eztabaidatu zuten. Mozioak ez zuen aitzina egin egun bizi dugu egoera politiko gatazkatsuegatik, baina behintzat erakutsi zuen oraindik ere nafarroan badirela Franco diktadorearen arrastoak.

**G**ERRA BITU ZENETIK 61 URTE PASATU dira, etan den azaroaren 20an 25 urte bete dira Franco diktadorea hil zenetik. Baina oraindik kontu horrek askoren animoak berotzen ditu. Are gehiago egun bizi dugun egoera gatazkatsua dela eta. Sinbologia frankista kentze mozioa EH taldeak aurkeztu zuen. Aldi 13 boto jaso zituen (EH, IU, EA-EAJ eta Barre), kontrako 17 (UPN eta PSN), eta 3 abstentzio (CDN).

Hasiera bain ez da oso logikoa PSNk mozio horren kama bozkatzzea, baina kontuan hartu behar dugun egoera zer-nolako den eta PSNk EHren kimenei ez diela batera kasurik egiten, Eren bortizkeria gaitzesten ez duela. Kontu horrela, Parlamentuko eztabaida anitz bati zen, eta Juan Jose Lizarbe sozialisten buru bere alderdiarekiko babesa eskatu zuen Eren Shanti Kirogok PSNren izena zikindu omen zelako. Baina hori gertatu zen arte, hain kontu interesgarri agertu ziren.

**PSNren kale izenak eta laureatua**

Batetik, Kirogok komentatu zuen PSNko alkateta duten herrietan oraindik kale izen frankistak dituztela. Cadreita eta Mendavia aipatu zituen. Eta, egun, ez batak eta ez besteak ez dute hain izenik. Kale izen frankistak dituzten herrietan Azagrak soilik du alkateta sozialista. Gero, ez du oso kale izen «deigarria». Azagrak udeletxea Plus Ultra karrikan dago. Plus Ultra abioi baten izena zen. Atlantikoaren ertetik bidaiaria historikoa egin zuen. Abioian steak beste, Francoren anaia bat eta Julio Rode Alda falangista joan ziren, eta frankismoak hagitx goratu zuen eraman gogoangarri hori.

Bestetik, Kirogok erran zuen erramu koroa duen Nafarroako armarría, laureatua, «inkonstituzionala, prekonstituzionala eta frankista»

dela, eta, beraz, eraikin ofizialetatik kendu behar dela. Baina CDNko Juan Cruz Allik argitu zuenez, armarrí hori ezarri zuen legea indargabetu gabe dago. Eta, kurioski, horren berri eman zuen Nafarroako Buletin Ofizialak oraindik Espainiako armarrí errepublikanoa zuen.


Baliozkoa izan edo ez, argi dago sinbolo hori frankista dela, eta Gerra Zibilean parte hartu zuen alde bati soilik egiten diola omen. Eta horrelako ikur gehiago dago. Baina, hala ere, us-te baino gutiago dira. NAFARKARIARI Iruñean aurkitu dituen guztiak ekarri ditu erreportaira, handienetik hasita. (Erorien monumentua), ttikienera (Etxebizitza Ministerio frankistaren plakak). Eta, horrez gainera, Nafarroan kale izen frankistak dituzten edo orain arte izan dituzten herriak aztertu ditu banan-banan.

**3.000 hildako inguru**

1936ko Gerra Zibilean Nafarroan ez zen frontetik izan, baina horrek ez du erran nahi hildakorik egon ez zenik. Kontu horrek polemika handia ekarri izan du beti, eta Nafarroan hil zituztenen inguruan kopuru zeharo ezberdinak eman izan dira. Horren inguruan, Tafallako Altafaylla kultur taldeak egin du zerbakatarik sakonena. 1986an argitaratu zuten ikerketaren emaitza *Navarra 1936, de la esperanza al terror* izeneko liburuan. Euren aburuz, Nafarroan 2.789 lagun erail zituzten gerra irabazi zutenek. Baina Altafayllakoek berek onartzen dute egiazko kopurua hori baino handiagoa dela. Gainera, zerbaki horri batzen ahal zaizkio Ezkaba mendiko gotorlekuan gaixotasunak direla eta hil ziren 305 presoak. Beraz, Nafarroan, gerra garaian, 3.000 lagunetik gora hil zituzten, eta heriotza gehienak Erriberan izan ziren.

→ Asier Azpilikueta

1936ko gerran afusilaturikoen milako indizea herriz herri



Egun kale izen frankistak dituzten herriak

- 1 Andosilla
- 2 Arguedas
- 3 Azagra
- 4 Buñuel
- 5 Caparrosio
- 6 Corella
- 7 Cortes
- 8 Fustiñana
- 9 Lapoblacion
- 10 Pitiillas


ITURRIA: Altafaylla Kultur Taldea eta telefono gida

J. ABEZTEGIA



**Monumentu frankistak**

«Garaipenaren hegoen azpian, Francisco Francoren sinbolo, Corellak etorriko diren belaunaldi gogorarazten die hiriaren suspertzea haren agintean hasi zela, eta bisitan etorri zela 1952ko abenduaren 5ean». Corellako futbol zelaia-aren ondoan dago monumentua.



**Pasatu egin zitzairen**

1931n errepublika jarri zenean armarríen koroa monarkikoak gaztelu bilakatu zituzten. Eta gero, 1936an, berri aldatu zituzten. Baina Iruñean behintzat bat pasatu egin zitzairen, zeren-plazako atarian dagoen Iruñeko armarría. Horrek oraindik hiru dorreko gaztelua du.



Joxemiel Bidador

## Gerra aitzineko euskal antzerkia Nafarroan (II)

Euskal Herriko beste zenbait tokitan gertatu zenaren kontrara, 36ko gerra aurretik euskal literaturak izan zuen loratzearen barruan hutsune nabarmena gertatu zen Nafarroan antzerki arloari dagokionez; guztiarekin ere, eta gutxi izanagatik, Nafarroa gaia zutenak edota nafarrek sorturiko lantxo batzuk idatzi ziren, tamalez, beti plazaratu ez zirenak.



### Urkiaren bi antzerkilanak

Ararbizuko Fernando Urkia fraile laterandarrak izkiriatu zituenak ez ziren makalak izan. Euskal Esnalea aldizkarian kolaborazio ugari agertarazi zituen 1926 eta 1931 bitartean. Antzerki arloan bi lan eskaini zizkigun. 1928an Illargi bete izenburuko bi ekitaldidun mixio-antzerkilanekin Euskeraren Adiskideek eratutako antzerki batzaldian gotzain jaunaren saria bere egin zuen, eta Zornotzako jaungoikozaletan irarkolan inprimarazi zuen. Esan behar da Illargi bete antzerkilan musikatua dugula, horren eresi egilea Pantzisko Madina izan zelarik; alabaina, ezin da ahantzi Urkia bera musikagilea eta organo jolea ere bazela, eta Madinak eginiko musikaren inguruan zer esan izanen zuen seguru. Guztiarekin ere, argitara emandako paperean ez zen partiturarik ezarri, eta egun ezezaguna

zaigu Illargi bete-rako Madinak konposatu zuen musika.

Urkiaren bigarren antzerkilan *Aralar mendian* du izenburu, eta 1934ko martxoaren Antzerki hilabetekariaren 27. zenbakian agertu zen. Ekitaldi bakoitzeko lana dugu, gizonkoentzako bakarrik, eta Nafarroa eta Gipuzkoa arteko mugaleroan garatzen da, Errealengoko txabola batean. Urkiarentzako *locus amoenus* delakoaren gauzapena zitekeena: «Zorion billa gizonak dabilta munduan inun ezin billaturik emen lur gañean baldin pake izpirik bada ludi zabalean ementxe arkituko da artzaien tartean».

### Espartza eta Tapiaren antzerkilanak

Lesakako seme eta idazkari jardun zuen Eladio Espartza Aginagak lan ezagun bakarra idatzi zuen euskaraz. *Panpina* izenburuko antzerkilana, 1932an saritu ziotena. Zoritarrez, lan honen berri ez dugu batere. Esan aipamena da dugun zehaztasun bakarra, ez baitakigu *Panpina* inoiz ere taularatu zenetz,

ez eta zein-nolako lana zitekeen. Interesgarria oso gertatzen zaigu, ordea, mugimenduari atxikia oso zitzaion pertsona baten euskal lana topatzea. Nafarroan horren gutxi landu zen antzerki arlokoa gainera.

Gure Alejandro Tapia, oraino gutxi ezaguturiko olerkari ahantzia, 1899ko abuztuaren 1 In jaiotako eta 1957ko maiatzaren 21ean zendu zen Iruñean. Taxuzko olerkaria, fina eta naroa, gutxienez antzerkilan bat idatzi zuen, ezagutzen dugun bakarra, Jose Maria Satrustegik Caldereria karrikako Areta liburu dendan idorrotuena eta *Egan* aldizkarian 1985ean argitara eman zuena. Gauza jakina da 36ko gerrateak erabat moztu zuela Tapiaren ekoizpen literarioa, eta Tapiaren eskuizkribuak gerra ostean topatu baziren ere, pentsatzekoa da Navarria karrikako gizonak 1936an baino lehen izkiriaturiko zuela bere *Kattalin umezurtza*. Gainera, Tapiaren antzerkilana gerra aurretiko urteetan errepikatzen ziren moldeetan sorturiko lana dugu. Euskara aldetik freskoa dugu Tapiaren lana, Baztanen ikasitako euskaraz apailatuta, hitanoaren erabilera maratzak harritzen duelarik, sinesgarri gertatzen dela. Egintza, ordea, konbentzionala, bukaeran moraleja duten lan horietakoa, eta irakaskintza arras kristaua; oker hasi eta zuzen bukatzen den beste istorio bat dugu, laua, ia hutsala, bere tamaina laburra kontutan harturik aldapa erpinegia gertatzen dela, eta horretan ez zuen sobera asmatu gure olerkariak; kondentsatuegia atera zitzaion, trinkoegia.



panpilonia zirkus


Pello Argiñarena

**B**izkarrez atzera lurrera erortzea ez da batere zaila Iruñean. Are errazagoa, Yolanda Barcinak non eta Eroritakoan monumentuan izotz pista paratzen badu. Horrenbestez, behea ez jotze-arren hiriburuko beste kokapen batera abiatuko gara. Antoniuttiko parkean Unairekin egin dugu topo. Aukeran, berak ere nahiago du hormatu gabeko pista irristatzea. Asfaltetik porlanezko hormetan barna eroso ibiltzen da joan-etorrian lagunekin batera. «Gu patineteroak gara, skaterrak».

Arratsaldero hiru orduz elkartzen dira Takoneratik gertu, belarrez inguraturik dagoen zementuzko uharte ttikian. Asfaltoko loreak dira. Talde zahala osatzen dute.

«Hogei urte ingurukoak eta mutilak gara gehienak». Ezker eta eskubi, gora eta behera ibiltzen dira zoruan zoraturik, zoruan eta zeruan. Tamalez, haien hezurak ez daude porlanez eginak. «Eskumuturrak sarritan hautsi ditut, eta orkatilak oso erraz bihurtzen zaizkit». Horrelakoetan, kolperik ez jasotzeko, taula baten gainean oreka mantentzeko tenorean nahiago luke itsasoan surfa praktikatzeko. Nolanahi ere, Unai lehorrean ohituta dago. Antoniuttitik at, metropoli osoa zeharkatzen du patinetearekin; bere garraio-bidea da. «15.000 pezetako isunak hainbatetan jarri dizkide, baina ez ditut inoiz ordaindu». Haren esanetan bide berezia antolatu beharra dago propio bizikletaz eta irristagailuz ibiltzeko.

Gainera, kotxea bera baino zaharragoa omen da patinetea. «Gezurra badirudi ere Oibarren bi mila urte dituen



Patinetezaleak asfaltoko loreak dira. ● MIKEL SAIZ

## Zoruan eta zeruan

taula gurpildun bat aurkitu zuten orain dela gutxi». Skateboardlariena Estatu Batuetako moda simple bat besterik ez zela uste izan dugu orain arte. Oker geunden. Nolanahi ere, bidelagun berriak azaldu zaizkie bat-batean, oraingoan bai modaren eraginez. Aluminiozko monopatin bolantendunak nonahi ikus daitezke azken aldian. Haiek, ordea, bereari eusteko asmoa daukate gira eta buelta Antoniuttiko pista. «Euskal Herriko pista hoberena da gurea. Aldapa ederrak ditu, abiadura hartzeko arazorik ez dugu eta gaintu beharreko oztopoz beterik dago».

Okerrena bertara ikusle modura azaltzen den jendetza omen da. «Hainbatek hau edo beste hori egiteko eskatzen digute; gaindiezina, jasan ezina da oztopo hori». Hala ere, hantxe jarraitzen dute ezker eta eskubi, gora eta behera, jauzi batean. Zoruan zoriontsu bizi dira.

## Ziria

● Motxorrosolo ●

### Trebalekuak

**K**omunikazioaren aroan inoiz baino errazago oztopatzen da elearen bidea. Afera ez da iritzi kontrajarriak defendatzea; eztabaidalekua bera ukatzen zaigu. Ezinkusiaren isiltasuna hainbat bide onartzen ez den elea saihesteko. Fororik ezean, trebaleku berriak eraiki beharko ditugu. Eredu berdina goldatzeak ez du emaitzen oparotasuna ziurtatzen.



# Jesus Diges

ARGAZKILARIA

## «Kirolak argazki ederrak egiteko aukera

Nafarroako Gobernuak antolatu kirol argazkigintza saria irabazi berri du Efe albiste agentziako argazkilari Jesus Digesek, Portlandeko jokalaria Alberto Martini partida batean egindako irudiarekin. Biak elkartu, eta Diges objetiboaren bestaldean paratu dugu, bere lanaz mintzatzeko.



● CRISTINA BERIAIN

**D**UELA HAMAR URTE AILEGATU zen Jesus Diges Iruñera, Madrildik. Kamera eskutan du eguneko ordu gehienetan, lan tresna baitauka. Goizeko prentsaurrekoak amaituta izan dugu harekin hitz egiteko aukera, lanean jarraitu aurretik.

■ **Eguneroko lanean maiz ateratzen al da sariren bat merezi duen argazkirik?**

Lehen mailako lehiaketatan ari diren Portland eta Osasuna bezalako taldeekin egia da aukerak sortzen direla argazki bereziak egiteko. Eskubaloia dagokionez, indar handiko kirola da eta argazki ederrak egiteko aukerak eskaintzen ditu. Alberto, gainera, maskararekin agertzen da argazki sarituan eta baliteke horrek zentzu berezi bat ematea irudiari.

■ **Horrelako sariketek prentsaurrekoen errutinari ihes egiteko balio dute?**

Bai. Prentsaurrekoetan lana berdina da beti. Gauza berriak egiten saiatzen gara, baina oso zaila da, beti leku eta jende bera agertzen baita. Objektibo eta enkua draketekin jolasten saiatzen gara, baina, azkenean, dena eginda dago eta, halaber, gauza bera egin behar duzu berriro. Kirol argazkigintzan, berriro, jokalariak ematen dizu argazkia, eta sortzen diren aukerak profitatzea da gakoa.

■ **Argazki sariketetan ez dira amateurak eta profesionalak be-**

**reitzen; zer deritzozu horri?**

Ezin direla talde berean sartu, eta bakoitzarentzat sariketa bat antolatzerik ez badago, gutxienez sariak ematerakoan bereizketa egin beharko litzatekeela; beharrezkoa da argazkigintzaren alorrean lanean ari garenok motibatuzko. Jendeak ez du parte hartzen motibaziorik ez duelako.

■ **Argazkigintza lana besterik ez da zuzentzat, edo alderdi artistikoa jorratzea ere gustuko duzu?**

Zaila da, egunero eskutan baitauekazu argazki kamera. Ondorioz, denbora daukaguzen alderdi artistikoa jorratzea baino gehiago, egunero diari.

koaz ezberdina den zerbait egitea bilatzen dut, eguneroko lanetik ihes egitea.

■ **Madrildarra zara eta handik etorri zinen Iruñera; alde handia dago hango eta hemengo lan egiteko moduaren artean?**

Aldea badago. Lana bera da, baina Madrilen askoz medio gehiago dago. Hemen gutxi gara eta elkarrekin ongi moldatzen gara. Madrilen, hainbeste jende dagoenez, arazo gehiago sortzen dira. Hemen, tirabirak daudenean, ezberdina da, ongi eza gutzen dugulako elkar. Gure artean oso giro ona dago, gainera.

■ **Iruñea hiri txikia da, baina gauzak gertatzen dira hemen ere, noizbehinka. Aitzoainen, besoa apurtuta atera zinen intsumisoek kuartelean egin zuten protestalditik, militarrek atxiki ondoren.**

Orduan gauza bakarra ikasi nuen: berriro militarrekin antzeko zerbait gertatzen bazait kamera emanen dielda. Oso egoera ezatsegina izan zen, batez ere azkenean salaketaren bat jartzeko saioak hutsan gelditu zirelako.



● JESUS DIGES

### soslaia

1982. urtean hasi zen Jesus Diges Efe agentzian lanean, Madrilen. Udan lan egiteko kontratuarekin hasi zen eta 1989an plantillan hartu zuten.

1991. urtean Iruñera etortzeko aukera izan zuen argazkilari madrildarra, Nafarroako hiriburuan lanean ari zena Madrileran joan zelako. Iruñean hutsik gelditu zen lekua betetzeko aukeratu zuten eta, geroztik, hemen ari da lanean.

Iruñeko Efeko bulegora ailegatu zeneko pasadizoak gogoratu du Digesek: «Madrilen argazkilarik dotore jantzen dira, eta, Iruñera ailegatu nintzenean, hemen gauza bera gertatuko zela pentsatu nuen. Jaka jantzi nuen lehen egunean, eta horrek harritu egin zituen lankideak. Noski, arratsaldean arropa aldatu nuen».

■ **Berriki, berriro, Espainiako presidente Jose Maria Aznarrek Seul eta Teheranera egindako bidaiak jarraitu duzu. Askotan sortzen dira horrelako aukerak?**

«Madrilen, hainbeste argazkilari dagoenez, arazo gehiago sortzen dira. Baina hemen, tirabirak daudenean, ezberdina da, ongi ezagutzen dugulako elkar; gure artean oso giro ona dago, gainera»

Hamar urte daramat Iruñean eta lehen aldian izan da. Esperientzia polita izan da, bidaiatzeko aukera izan dudalako batetik, nahiz eta denbora gehiena aireportuetan eman, eta bestetik beste herri-tako argazkilariekin lan egiteko aukera izan dudalako. Batzuetan, 50 edo 100 argazkilari eta kamerari biltzen ginen.

■ **Aukeratu ahal izanez gero, zer argazki mota egitea gustatuko litzaizuke?**

Kirol argazkiak, argi daukat. Kirola asko maite dut, eta edozein kiroltako argazkiak egitea gustatzen zait.

→ Edurne Elizondo





## Nafar Kronika

Mikel Beramendi

### Jose Joaquin Arazuri

J aques Prévert poetak zioenez, hiriak beren sekretuak argituko dizkigu, baldin eta guk hari pausuak kontatu gabe, eskuzabal, eskaintzeko prest bagaude. Hiriko karrika eta plazak erlojuari begiratu gabe ibiltzea omen da, beraz, beraien sekretuez jabetzeko bide bakarra. Ibili eta ibili, batetik bestera, etxe, denda, taberna eta zoko guztiak, direna eta gordetzen dutena gure egiteko. Ez dakit Jose Joaquin Arazuri medikuak Préverten iritziaren berririk ote zuen, baina haren gomendioa bete zuela argi dago.

Arazuri gaur egungo parte zaharrera mugaturiko Iruñean sortu zen, hiri tikiaren hazkundera eragozten zuten harresiak bota eta lehen zabalgunera eraiki zuteneko garai hartan. Haurra zelarik karrika horietan jolasean hasi eta hil arte behin eta berriro ibili zituen, horrek ematen zion plazer hutsagatik. Karrika eta plazetan bizi izanikoa «ordaintzeko» modua izan da Arazurik urtetan eginiko lana, medikuak berak behin baino gehiagotan azaldu zuenez.

Iruñeko karrika eta plazak ibiltzeaz gain, Arazurik Iruñeko artxiboa ere askotan bisitatu zuen bere lanetarako behar zituen datuen bila. Egia erran, Arazurirena ez da ohikoena. Izan ere, artxi-bozaleak paper zaharren artean hainbeste ordu eman ondoren ikertzen ari diren aitzineko munduan bizi izaten baitira, gaur egungotik kanpo. Eta karrika eta tabernazaleei, aldiz, aipatu ere ez egin artxibo hitza, hori zer den ez dakite-eta. Berriki zenduriko irunxemea artxi-boia zein karrika uztartzen zekien bakarrinetakoa izan da. Horrek, dudarik gabe, karriketako sekretuen jabe egiteko ikuspuntu egokiena eman zion. Aunitz urtez datu, argazki eta istorioak biltzen aritu ondoren, guztioi ezagutarazi zizkigun hainbat liburu ederren bidez. Zorionez, Iruñeko sekretuak hobekien ezagutzen zituen pediatria eta idazlea lurrean liburu-altxor ordainezina utzita joan zaigu. Goian bego, itarra galtzaile suertatu ez dadin».

## gure aukerak

### MUSIKA

- **Zangoza:** Gaur, 23:00etan, More Rock taldea izanen da Dos Caballos tabernan.
- **Iruñea:** K-Tulu eta Txaiñas taldeek Artsaian joko dute bihar, 23:00etan.
- **Zangoza:** Bihar, 20:30ean, Amama Luisa & Dixielangileak Brass Band taldeak Karmengo auditorioan joko du.
- **Iruñea:** Igandean, eguerdiko 12:45ean, Plazatik Salarat taldeak kontzertua eskainiko du elizan.
- **Iruñea:** Astelehenean, Beñat Axiari, Beñat Amorena eta Joel Merah musikariek *Kantu herrikoia*ren bidetik kontzertua eskainiko dute 20:00etan, Erraldoien Txokoan.

### ANTZERKIA

- **Iruñea:** Bihar, larunbatarekin, Trokolo taldeak *Tantaz tanta* haurrentzako antzezlan taularatuko du Mikael aretoan, 12:00etan.

### HITZALDIAK

- **Iruñea:** Asteartean, Iñaki Zabaleta 110. *Street-eko* geltokia liburuaz ariko da 13:00etan, NUPen.
- **Iruñea:** Asteartean, Noel Elorga enpresa gizonak *Baxenabarreren eta Nafarroa Garaia*ren arteko harremanak izanen ditu mintzagai 20:00etan, Erraldoien Txokoan. Manex Goienetxe historialariak, berriz, *Baxenabarre* historian zehar izeneko hitzaldia emanen du.
- **Iruñea:** Asteazkenean, Xipri Alberbidek *Nafarroa Behereko literatura* izenburupean hitzaldia emanen du, 20:00etan, Erraldoien Txokoan. Pantxo Hirigaraik eta Mattin Hirigoien idazleek, berriz, Baxenabarreko literaturgileen testuak irakurriko dituzte.

- **Iruñea:** Ostegunean, iluntzeko 20:00etan, Xabi Martinezek Nikaraguaren inguruko diapositiba emanaldia eskainiko du Arrotxapea auzoko Ipar-Gorri tabernan.
- **Iruñea:** Datorren ostegun honetan, mahai-ingurua egingen dute Patxi Salaberrik (*Nafarroa Beherea Nafarroa Garaiko onomastikan*), Iñaki Caminok (*Mugako dialektologia*) eta Daniel Landartek (*Euskararen egoera gaur egun Baxenabarreren*), ilunabarreko 20:00etan izanen da, Erraldoien Txokoan.

### IKASTAROAK

- **Iruñea:** Ezindu Fisikoen Koordinakundeak irisgarritasunaren inguruko jardunaldiak egingen ditu hilaren 25 eta 26an Iruñea Park hotelen. Plazak mugatuak dira. Izena emateko deitu 948-272500 telefonora.
- **Iruñea:** Hiesaren Aurkako Nafarroako Batzordeak gaitasunari aurrez aurre begiratzeko lantegia antolatu du hilaren 24tik 26ra. Izena eman nahi izanez gero 948-213357 telefonora deitu.

### ERAKUSKETAK

- **Zizur Nagusia:** Xabier Elizalde-aren eskultura erakusketa ikus daiteke Kultur Etxean gaur eta bihar bakarrik, 19:00etatik 21:00etara, eta igandean 12:00etatik 14:00etara.
- **Barañain:** Hilaren 24a arte ardoaren gaineko bineta erakusketa bitxia ikus daiteke Kultur Etxean astelehenean ostiralera, 18:30etik 20:30era.

• JOXE LACALLE



## Interpretatzaile handia

Ez da Christian Zacharias edo Marie-Luise Hinrichs, ezta Beaux Arts hirukotea ere; Alicia de Larrocharen antzik ez du eta Brodsky laukotea osatzeko beste hiru falta zizkio; Elisabete Matos, Marcin Bronikowski eta Miquel Ortegaren mailarik ez du oraino erakutsi. Baina, ezbairik gabe, interpretatzaile handia dugu argazkikoa, garaieraz bederen. Auskalo klarineta ongi jotzen duen ala ez, baina behintzat salatzeko da. Entzun nahi izanez gero, Gaiarre antzokiaren atarian aurkituko duzu, kale gorrian, klarinetaekin udazkeneko haize bolada hotzei aurre egiten.